



ABONAMENDUAREN BALDINTZA OROKORRAK

1. artikulua. Abonatuak

1.1. EIBAR KIROL ELKARTEA K.E.A. - SOCIEDAD DEPORTIVA EIBAR, S.A.D.eko (aurrerantzean "Kluba") abonatuak dira Klubak Ipurua Estadioan antolatu edo parte hartzen duen partidetarako aldizka sartzeko eta izateko aukera kontratatzen dutenak.

Klubak sarrera ukatzeko eskubidea du.

1.2. Klubeko abonatuak pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke eta honela deituko dira:

- Haurrak: 0 - 12 urte;
- Gazteak: 13 - 22 urte;
- Helduak: 23 - 65 urte;
- Bonifikatua: langabeak, elbarriak eta erretiratuak.

Abonu bonifikatuaren abantailen onuradun izan nahi duen orok hurrengo baldintzak bete behar ditu:

- Langabeak: Lanbideko agiria (Darde) eta Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren txostena aurkeztu behar dute. Hobaria aplikatu ahal izateko, dokumentu horiek Klubeko bulegoetan aurkeztu behar dira abonamenduaren kuotak helbideratu baino lehen.

- Pentsiodun eta elbarriak: Abonu mota hau eskuratzeko, interesdunek pentsiodun edo elbarri egoera egiaztatze dokumentu ofiziala aurkeztu behar dute. Derrigorrean dokumentu horiek ordaindu beharreko zenbatekoa helbideratu baino lehen aurkeztu behar dira. Pentsiodunen kasuan, ezinbesteko baldintza izango da bost urteko antzintasuna izatea.



1.3. Kategoria kalkulatzeko urtarriletik abendura arteko urteko aldia aintzat hartuko da, eskatzaileak urteak betetzen dituen hilabeteari erreparatu gabe.

2. artikulua. Abonatuen eskubideak

Abonatuak honako eskubide hauek dituzte:

2.1. Klubak antolatzen dituen kirol ekitaldietara joatea Klubak une bakoitzean abonatuak egokitutako eserlekuetan, Ipuruako Estadioaren erabilgarritasunaren arabera.

Abonatuak beharturik daude egin beharreko eserleku aldaketak onartzera, adibidez, estadioaren birmoldaketaren ondorioz, besteak beste.

2.2. Abonatu izaerari eta Klubarekiko harremanei eragiten dien edozein gairi buruz dagokion **informazioa indibidualki jasotzea.**

2.3. Ohore, duintasun eta intimitate eskubideak errespetatuak izatea.

2.4. Klubeko abonatu txartelak eskubidea ematen du Klubeko online dendako **deskontuez** baliatzeko.

2.5. Abonuaren titulartasun aldaketa bat egitea. Horretarako, beharrezkoa da hurrengo baldintzak betetzea:

Aurreko titularrak idatzizko baimena eman behar du kudeaketa egin ahal izateko. Horrez gain, aurreko eta hurrengo titularraren NANaren fotokopiak aurkeztu behar dira.

Kasu batean zein bestean, antzintasuna titulartasuna aldatzen den unetik aurrera hasiko da.

Aldaketa aurreko titularraren heriotzagatik egiten bada, heriotza-agiriaren kopia aurkeztu behar da. Titulartasun aldaketa indarrean dauden legeen arabera arautuko da (7.2.b).



SDEIBAR

2.6. Zale guztiei zerbitzua emateko xedearekin, eta abonatu eta Klubeko jarraitzaile guztiei emandako arreta egunero hobetzeko konpromisoarekin, profesional talde bat prest dago behar den edozein gai edo gestiori buruz pertsonalki arreta emateko eta informatzeko.

SD Eibar S.A.D. ren bulegoak: Ipurua Estadioa – Ipurua Kalea, 2. 20600 Eibar.

Klubaren Abonatuentzako Arreta Zerbitzuak arreta pertsonalizatua eskaintzen die Klubaren jarraitzaile eta abonatu guztiei hurrengo posta elektronikoaren bitartez:

socios@sdeibar.com

sdeibar@sdeibar.com eta telefono zenbaki honetan: 943 20 18 31

3. artikulua. Abonatuen betebeharrak

Abonatuak honako betebeharrak dituzte:

3.1. Ipuruako Estadioan abonatuaren txartelaren jabeari dagokion kategoriako txartelarekin sartzea. Partida egunetan txartela ahaztu edo aurkezten ez badute, Klubak ez dago behartuta sarrera berri bat igortzera.

3.2. Sektore arauan honela aginduta (Kirolean bortizkeriaren, arrazismoaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egiteko Araudia onesten duen 203/2010 Errege Dekretuaren, otsailaren 26koaren, 17.1 artikulua), SD Eibarren partida baten ondorioz Ipuruako Estadioan sartu nahi duen pertsona orok sartzeko titulu egiaztagarri eta indibidual bat eraman beharko du (sarrera edo txartela). Beraz, sartzeko titulu egiaztagarria ez duen pertsona orori Ipuruako Estadioan sartzea debekatuko zaio.

3.3. **Abonamenduaren Baldintza Orokorrak betetzea** baita etorkizunean **Administrazio Kontseiluak** aitortzen zaizkion eskumenak baliatuz erabaki ditzakeen horien aldaketak ere.

3.4. Abonuaren titularra bere txartela edo txartel horri lotutako sarreraren arduraduna da eta Klubean indarrean dagoen araudia beteko ez balitz espedientea ireki ahal izango zaio.



SDEIBAR

3.5. Abonatuak bermatu egiten dute, nolanahi ere, emandako datu pertsonalen zehaztasuna, egunerokotasuna eta benetakotasuna, horren erantzukizuna dute, eta behar bezala eguneratuta edukiko dituztela hitzematen dute.

3.6. Bere abonuan esleitu zaion, **eserleku zehatzean** esertzea eta partidan zehar horretan egotea, ebakuazio bideetan jarri gabe, segurtasun arrazoiengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera.

3.7. **Abonatuak ekintzak edo omisioak egitearen ondorioz, behar bezala egiaztatuta badaude**, sozietatearen ondarean kalte edo galerak **eragin badira, Klubari puntualki ordaintzeko**.

3.8. Posta arrunteko eta elektronikoko helbide bat edo beste datu batzuk **ematea** Klubaren jakinarazpenak helarazteko, eta helbide aldaketak behar bezala jakinaraztea. Klubak ez du bere gain hartuko abonatuak datu horiek ez eguneratzeagatik eragin daitekeen edozein gertaera, horien artean egonik abonatuaren izaera edo eserlekua galtzea, ordainagiriak itzultzea, korrespondentzia galtzea, kuotak berritzea, etab.

3.9. Kreditu entitate baten **kontu korrontea** ematea, abonatuaren kuotak edo ekarpenak kargatu ahal izateko.

3.10. **Abonatuari dagozkion ordainketak** egitea, kontratatutako **ekarpen arruntak zein markatutako bereziak egitea** (Administrazio Kontseiluak erabakitako "Klubaren egina", etab.); hori abonatuaren izaeran sartuko da, eta dokumentu honetan adierazitako eskubideez baliatzeko aukera ematen du.



SDEIBAR

Abonatuak bi helbideratze modalitateen artean aukera dezake*:

- Urtekoa: Abonuaren zenbateko osoa helbideratuko da, ordainketa urtarrila eta otsailaren artean eginez.

- Hiru epetan: Abonuaren zenbatekoa hiru kuotetan helbideratuko da eta ordainketak urtarrila, martxoa eta maiatzean egingo dira.

*Aukera jakinarazten ez bada, urteroko helbideratzea ezarriko da.

Zenbatekoa ordaintzen ez bada, kaltetuak hilabete bateko epea izango du, ez-ordaintze egoera gertatzen denetik, bere egoera erregularizatzeko. Egoera horretan, abonatua ezin izango da estadioan sartu ordainketa egin arte (ikusi 7.2.d.)

3.11. Partida batera joaten den pertsona orok aitortzen du ekintza publiko bat dela, eta baimena ematen du, inolako kontraprestaziorik gabe, bere ahotsa, irudia eta aurpegia erabiltzeko telebistako edo irratiko zuzeneko edo aurrez grabatutako emankizunetan, bideoetan, argazkietan edo gaur egungo edo etorkizuneko bestelako euskarri batean.

3.12. Abonatuaren izaerak ematen dion eskubide guztiak **erakundearen irudiak , prestigioak eta proiektio publikoak merezi duten duintasunarekin eta errespetuarekin** erabiltzea, eta, Klubaren jardueretan parte hartzeko eskubideei dagokienez, eta **adierazpen librerako eskubideei dagokienez** , gainerako **abonatu, zuzendari, kirolari eta enplegatuek edo Klubari lotutako beste edozein pertsonak merezi duten ohore, duintasun eta intimitatea errespetatzea.**

3.13. Abonatuak txartela galtzen badu, ahalik eta lasterren Klubeko langileei jakinarazi beharko zaie. Txartel berria Klubak zehaztutako baldintzen arabera igorriko da, aurreko txartela baliogabetuz. Horretarako, beharrezkoa izango da nortasun agiri ofizial bat aurkeztea.



SDEIBAR

4. artikulua. Abonatu izaera lortzea

4.1. Abonatuak Klubean sartzeari Administrazio Kontseiluaren eskumena izango da, eta horrek edozein unetan **denborazko mugak** ezarri ahal izango ditu abonatuaren gehieneko kopurua edo onartzeko baldintza orokorrak ezartzeko.

Abonatu izaeraren eskaera interesdunaren eskari presentzialaz egingo da. Edonola ere, derrigorrezkoa izango da NAN aurkeztea, edo pasaportearen, edo Familia Liburua, abonatu moduan adingabeei alta ematen bazaie.

Eskaria Klubeko administrazioak emango dituen inprimakien bitartez egingo da, dagokion formularioan agertzen diren datu pertsonalekin, eta horien artean agertuko dira kobrantzen helbideratzea (kreditu entitate bateko kontu korrontean) eta posta elektronikoko helbidea.

Abonatuak onartzea bertan behera utzi bada, **Administrazio Kontseiluak** sartzeko eskariaren behin-behineko erregistro bat **sortzea erabaki ahal izango du** egiten diren eskariak antzintasunaren arabera hurrenkeran jartzeko. Erregistro horretan izena emandakoek Klubean sartzeko lehentasunezko eskubidea izango dute berriro abonatu berriak onartzen hasten denean. Administrazio Kontseiluak aipaturako Erregistroan izena emateko baldintzak arautuko ditu.

5. artikulua. Abonatuaren betebeharrak Klubean instalazioetan sartu, erabili eta egoteari dagokionez.

5.1. Abonatuak kirol ikuskizunetako sektoreko araudia bete eta errespetatzeko betebeharrak hartzen du (19/2007 Legea eta 203/2010 ED, EAEko 4/1995 Legea, 2816/1982 Errege Dekretua, etab.).

Klubeak neurriak hartuko ditu abonatuak estadiora sartu, erabili eta egoteari dagokionez beren betebeharrak betetzen ez badituzte.



SDEIBAR

Klubak antolatutako edo berak parte hartzen dueneko kirol ekitaldietan sartu ahal izateko abonua edo titulua uzten bada, ulertuko da abonua uzten duena, bere abonua edo titulua uzteko ezinbesteko laguntzailea den heinean, hartzaileak egin ditzakeen arau-hausteen erantzule solidarioa izango dela, haren erantzukizun pertsonalak gorabehera.

5.2. Sarrera edo abonua baten barra-kodea irakurtzen den lehenengo aldia soilik hartuko da baliozkotzat eta inolaz ere ez zaie esparruan sartzen utziko beranduago kode berdina erabiltzen saiatzen direnei. Edozein modutan, aipatutako dokumentuaren titularrak izango du bikoiztasun horrek eragin ditzakeen arazo erantzukizuna.

5.3. Zehazki, eta asmo argigarri hutsekin eta mugarik ezarri gabe, abonatuak honako debeku hauek errespetatzeko betebeharrak hartzen dute:

a) zuzentasun falta arina beste abonatuakiko, edo publiko orokorrarekiko, desordena egoerak eraginez;

b) estadioan txartelaren eramaileari dagokion baino kategoriatxikiagoko txartel batekin sartzea. Hori gertatuz gero, Klubak debeku hori hausten duten pertsona guztiei txartela **kenduko** die, titularrak bere egoera erregularizatzen duen arte. **Erregularizatzeko**, kendutako txartelaren abonua kuotaren eta txartela kendu zaion pertsonaren kategoriarik dagokion kuotaren arteko diferentziala ordaindu beharko da.

c) legearen kontra abonatuak egiten dituzten ekintzak edo omisioak, transzendentzia publikoa badute edo Klubari, beste abonatuakiko, Administrazio Kontseiluko kideei, jokalariei, teknikariei edo enplegatuei kalte materialak edo irudikoak eragiten badizkiete;

d) partida, proba edo lehiaketa batean zehar indarkeria saihesteko betebeharrak betetzeko orduan axolagabekeriak jokatzea, eta indarkeria ekintzen egileak ikertzen eta nortasuna aurkitzen ez laguntzea;

e) kirol ikuskizunak gauzatzea arautzen duten arauak ez betetzea, horien garapen egokia galarazten bada edo parte hartzaileentzat edo bertaratutako ikusleentzat kalte eragiten bada.



SDEIBAR

f) Klubaren instalazio edo esparruetan, edo Kluba partida bat jokatzen ari den lekuetan, edari alkoholdunak eta substantzia estupefaziante, psikotropiko edo estimulatzaileak edo antzeko produktuak sartzea, saltzea, kontsumitzea edo edukitzea, gaian eskumena duen Administrazio Publikoak har ditzakeen neurrien kalterik gabe;

g) beste abonatuari edo kirol ikuskizun batera joandako publikoari irainak egitea edo ofenditzea;

h) Klubaren instalazio edo esparruetan edo Klubeko talderen batek partida, proba edo lehiaketa bat jokatzen duen lekuetan lege, araudi eta estatutu arauak haustea sarrerak saltzeko sistemari dagokionez, zaletu aurkariak esparruko gune desberdinetan bereizteari dagokionez, eta dauden debekuak betetzeko sarreretan egiten den kontrolari dagokionez.

i) Dokumentu honetako 3.5 artikuluan xedatutako edozein betebeharrak ez betetzea. Kasu horretan Klubak testu honetako bertako 7.2.d artikuluan xedatutakoaren arabera jokatuko du.

j) titulua (abonua edo sarrerak) kostu handiarekin lagatzea, edozein preziotan, Klubak antolatzen edo parte hartzen dueneko kirol ekitaldietan sartzeko aukera emateko.

k) titulua (abonua edo sarrerak) kostu handiarekin beste baten esku uztea edo lagatzea, edozein preziotan, Klubak antolatzen edo berak parte hartzen duen kirol ekitaldietan sartzeko aukera emateko, betiere lagapen hori sare antolatu, Internet edo zabalkunde handiko beste edozein bitartekoren bidez egiten bada;

l) abonua nola edo hala manipulatzeko edo faltsifikatzeko;

m) Klubari zigor exekutiboa ekarriko dioten portaerak izatea, zigor ekonomikoa edo beste edozein motatakoa izan;



SDEIBAR

n) legearen eta abonareen termino eta baldintzen aurkako abonatuaren edozein ekintza edo omisio:

- engainua edo asmo txarra dagoenean; edo
- transzendentzia publiko handia badu; ulerturik transzendentzia hori gertatzen dela ekintzak komunikabideetan zabalkundea badu, eta eragin orokorra badu; edo
- Klubari edo Klubeko beste abonatu batzuei, jokalariei, teknikariei edo enplegatuei kalte material edo moral handia egiten bazaie;

o) zuzenean edo zeharka, indarkeriara edo kirolean indarkeria saihesteko lege edo araudietako arauak haustera bultzatzen edo eragiten duten ekintzak, adierazpenak eta portaerak;

p) edonolako armak edo ondorio berak eragin ditzaketen objektuak sartzea edo edukitzea, aktibatzea edo jaurtitzea, baita bengalak, petardoak, lehergailuak eta gainerako produktu piroteknikoak edo, oro har, produktu sukoiak, ke sortzaileak edo korrosiboak ere, Klubaren instalazio edo esparruetan edo Klubeko talderen batek partida bat jokatzen duenean;

q) partida, proba edo lehiaketa baten garapen arrunta larriki galarazten duten edo behin-behinean edo behin betiko etetera behartzen duten portaerak;

r) pankartak, sinboloak edo ikurrak sartzea edo erakustea, beren edukiagatik edo erakusten edo erabiltzen diren moduagatik estatuko edo nazioarteko araudia urratzen badute, edo portaera bortitz, sexista, xenofobo edo arrazistetara bultzatu, sustatu edo lagun dezaketen edo edozein pertsona nabarmen gutxiesteko ekintza moduan har badaitezke, Klubaren instalazio edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida bat jokatzen duen esparruetan;

s) liskar, borroka edo desordena publikoetan parte hartzea Klubaren instalazio edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida bat jokatzen duen esparruetan, baita horien inguruko lekuetan eta dagozkien hirietan, pertsoneri edo ondasunei kaltea edo arrisku larria eragiten badiete;



SDEIBAR

t) Klubaren altzari edo instalazio edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida bat jokatzen duen lekuko altzarietan edo esparruetan nahita kalteak eragitea, baita dagozkion hirietako hiri altzarietan ere. Hurrengo artikuluan aurreikusitako zigorrak gorabehera, Klubaren altzari edo instalazioetan eragindako kalteak arau hausleak ordainduko ditu.

u) Partidak jokatzen ari diren bitartean pasabideetan egotea.

v) edozein motatako edozein marketin ekintza, baita marketin ezkutuko ekintzak ere. Klubak eskubidea erreserbatzen du arau honen aurkako ekintzak egiten dituzten pertsona edo erakundeen kontra egokitzat jotzen dituen ekintzak abiarazteko.

5.4. Abonatu batek Ipuruako Estadioan edo bertako inguruetan, SD Eibarrek bisitari moduan jokatzen dueneko beste estadio batzuetan, bertara joateko desplazamenduan, edo Klubari lotutako beste esparru eta instalazioetan arau hausteren bat egin badu, SD Eibarrek kasu bakoitzean dagokion zigorra proposatuko du (abonatuaren izaera etetea edo galtzea).

5.5. Abonatuak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko araudi sektoriala errespetatzeko betebeharra hartzen du (1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa). Lege horrek, beste gauzen artean, erretzea debekatzen du erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herritarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan.

5.6. Abonatuak kirolean bortizkeriaren, arrazismoaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egiteko Araudia onesten duen otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuak xedatutakoa errespetatzeko betebeharra hartzen du.



6. artikulua. Abonuaren baldintzak ez betetzearen ondorioak

6.1. Jokaera jakin batzuetarako bereziki aurreikusitako ondorioen kalterik gabe, eta gaian eskumena duen Administrazio Publikoak abiaraz ditzakeen prozeduren kalterik gabe, abonatuaren txartela kentzea erabakiko da abonatuaren izaera eteteko dagokion aldirako edo izaera hori kentzeko, modu ezeztazinean, kasuaren inguruabarren arabera eta egindako arau haustearen ezaugarrien arabera.

6.2. Abonatuaren izaera modu indibidualean eta **Klubak erabakita** baino ezingo da eten edo behin betiko galdu, estadioan sartu, erabili eta egoteari lotutako betebeharrak eta debekuak betetzen ez diren kasuetan, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 3. artikuluan xedatutako betebeharren arabera.

6.3. Abonatuaren izaera eteteko gehienezko epea bi urte izango da, eta horrek esan nahi du etenaldiak irauten duen denbora guztian ezingo dela abonua berritu.

6.4. Etenaldiak irauten duen bitartean, abonatuak ezingo ditu 2. artikulua aitortzen dizkion eskubideak erabili.

6.5. Abonua manipulatu edo faltsifikatzeari dagokionez, txartela kendu eta abonatu izaera eteteaz edo behin betiko galtzeaz gain, Klubak gaiari buruz egokitzen jotzen dituen legezko neurriak hartuko ditu abonatuaren titularraren eta txartela kendu zenean hura zeukan pertsonaren aurka.

6.6. Edozein neurri ezartzeak ez du arau hauslea salbuetsiko Klubari egindako kalteak ordaintzetik edo kalte-ordaina ematetik.

6.7. Zehazki, administrazioak ezar ditzakeen zehapenen artean, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko legeak (1/2016 LEGEA) hurrengo isunak aurreikusten ditu: gehienez 600 euro arau-hauste arinengatik; gehienez 10.000 euro arau-hauste larrien kasuan, eta gehienez 600.000 euro arau-hauste oso larriak izanez gero. Eta arau-hauste oso larrien kasuan, arau-hauslearen jarduera aldi baterako etetea eta, hala badagokio, bere establezimenduak behin-behinean ixtea ere barne hartzen da.



SDEIBAR

6.8. Zehazki, administrazioak ezar ditzakeen zehapenen artean, 203/2010 Dekretuak, otsailaren 26koa, kirolean bortizkeriaren, arrazismoaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egiteko Araudia onesten duena, hurrengo isunak aurreikusten ditu: gehienez 3.000 euro arau-hauste arinengatik; gehienez 60.000 euro arau-hauste larrien kasuan; eta gehienez 650.000 euro arau-hauste oso larriak izanez gero. Eta edozein kirol-esparrutara sartzeko debekua hilabete eta sei hilabete bitartean, arau-hauste arinen kasuan; edozein kirol-esparrutara sartzeko debekua sei hilabete eta bi urte bitartean, arau-hauste larrien kasuan; edo edozein kirol-esparrutara sartzeko debekua bi urte eta bost urte bitartean, arau-hauste oso larrien kasuan.

7. artikulua. Abonatu izaera galtzea

7.1. Abonatu izaera galtzea modu indibidualean eta arrazoi hauengatik baino ezingo da gertatu:

- abonatuaren **berariazko erabakiz**, Klubari modu frogagarrian adierazita;
- abonatuaren **heriotzagatik**;
- **Klubaren erabakiz**, instalazioetan sartu, erabili eta egoteari lotutako betebeharrak eta debekuak betetzen ez diren kasuetan, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 3. artikuluan xedatutako betebeharren arabera;
- zor den edozein zenbateko **ez ordaintzeagatik**: abonatuaren kuota arrunta edo aldizkakoa.

7.2. a. Lehen atalean aurreikusitako kasuetan (abonatuaren berariazko erabakia), galera automatikoki gauzatuko da hurrengo ordainketa sortu den unetik bertatik. SD Eibarren abonatu moduan **baja emateko**, abonatuaren titularrak edo bere legezko ordezkariak idatziz eskatu beharko du.

b. Bigarren atalari dagokionez (abonatuaren heriotza), abonatu izateari utziko dio, Klubak abonatuaren heriotzaren berri eduki bezain pronto. Hildako abonatuaren senideek Kluba jakinaren gainean jarri beharko dute. Horretarako bi aukera daude:

1) Hildako abonatuari baja eman; kasu honetan Klubak ordaindutako kuotaren zati proportzionala itzuliko die. Horretarako heriotza-agiria aurkeztu beharko dute.



SDEIBAR

2) Hildakoari baja eman eta abonatu berri bati alta eman.

c. Hirugarren atalean aurreikusitako kasuan, Klubak erabakiko du abonatu izaera etetea edo galtzea.

d. Azken atalean aurreikusitako kasuari dagokionez, ez ordaintzearen ondorioak honako hauek dira:

Abonatuak dagokion kuota zehaztutako epean ordaindu ez badu (3.10. puntua), Klubak abonua ezeztatu eta titularrari baja eman ahal izango dio.

Beste edozein kontzeptu osagarriren bat ordaintzen ez bada, kaltetua ezin izango da estadioan sartu dagokion zenbatekoa ordaindu arte.

- Abonuaren kuota arrunta edo aldizkakoa ez ordaintzea: egoera horrek eragingo du ordaintzen ez denetik SD Eibarrek Ipuruako Estadioan jokatzeko duen lehenengo partidan "pasatzeko ukoa" gertatzea, eta sartzeko dagokion atean jakinaraziko zaio Klubaren bulegoetara jo behar duela gertaera aztertze eta egoera erregularizatzeko. Ipuruako Estadioan jokatzeko den hurrengo partidan (ordaintzen ez denetik bigarrena) egoerak erregularizatu gabe jarraitzen badu, estadioan sartzeko atean abonatuaren txartela kenduko zaio. Ondoren abonatuari baja emango zaio, eta egoera hori behar bezala jakinaraziko zaio.

- Beste edozein kontzeptu osagarri ez ordaintzea: Beste edozein kontzeptu osagarri ez ordaintzeak dagokion ekitaldirako estadioan sartu ezina eragingo du.

Klubak kontzeptu osagarriak ordaindu gabe daudela ekitaldia gertatu eta gero jakiten badu, Kluba abonatuarekin harremanetan jarriko da, gertaera jakinarazteko. Gainera, abonuen kuota arrunta edo aldizkakoa ordaintzen ez denean bezala jokatu da, Estadioan sartzeari dagokionez aurreko kasuan aurreikusi den bezala. Egoera erregularizatu gabe jarraitzen badu, ordaindu gabeko zenbatekoa kuota arruntaren edo aldizkakoaren hurrengo kobrantzan sartuko da.



SDEIBAR

8. artikulua. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko klausula.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko arautegiak xedatutakoaren arabera, jakinarazten dugu emandako datu pertsonalak SD EIBARREN erantzukizuneko "Socios" izeneko fitxategi batean sartuko direla, egoitza Ipurua Kalea 2, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidean duena

Fitxategi horren xedea SD EIBARREN parte diren bazkideen inguruko jarduerak kudeatzea da, hala nola, buletin eta merkataritza-komunikazioak bidaltzea, komunikazio elektronikoak barne, SD EIBAR zein gure sustatzaile eta laguntzaileen produktuei buruzkoak. Gure sustatzaile eta laguntzaileen zerrenda eguneratua, zeinei datuak lagako zaizkien, hurrengo estekan kontsulta daiteke: www.sdeibar.com (<http://www.sdeibar.com/club/patrocinadores>). Datu horiek ez zaizkio aipatutakoez aparte beste inori helaraziko eta hartu ziren xedearekin kontserbatuko dira ezinbestekoa edo legezkoa denean.

Edonola ere, datuen titularrak emandako adostasuna ezeztatu dezake eta datu horiek sartu, zuzendu edo ezabatzeko eskubideak erabili, edo tratatzea mugatu edo aurka egin, edo datuen eramangarritasun-eskubidea erabili dezake. Eskaera hauek hurrengo posta elektronikoan egin daitezke: socios@sdeibar.com sdeibar@sdeibar.com edo posta arruntez hurrengo helbidean: Ipurua Kalea 2, 20600 Eibar (Gipuzkoa).

Sinadura:

Eibar, 201 ko aren (e)an